

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

|  |   |
|--|---|
| <b>1. Erakundearen izena:</b>  | Danobatgroup  |
| <b>2. Sektorea:</b>  | Makina erreminta  |
| <b>3. Langile kopurua:</b>   | Danobatgroup Kooperatiba Taldea (Danobat, Danobat Group, Goimek, Goiti, Ideko, Latz eta Soraluze): 900 langile (1300 mundu mailan)<br><br>Danobat Group, S. Coop.: 34 langile   |
| <b>4. Webgunea:</b>  | <a href="http://www.danobatgroup.com">www.danobatgroup.com</a>  |
| <b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b><br>(produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...): | Harreman instituzionalak garatzen ditu, politikak, markoak, taldeko kooperatiba denentzako proiektuak eta kooperatibei zerbitzuak eskaintzen dizkie (finantzak, komunikazioa, erosketa, diseinu industrialak, kalitatea, komertziala...). |

## Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

|                                     |  |
|-------------------------------------|--|
| <b>Solaskidearen izen-abizenak:</b> |  |
| <b>Helbide elektronikoa:</b>        |  |
| <b>Telefonoa:</b>                   |  |

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

|   |  |
|---|--|
| <b>1. Praktika onaren titulua:</b>  | <b>Barne komunikatuetarako 2 kanalak: euskara hutsezkoa eta elebietakoa.</b>   |
| <b>2. Praktika onaren azalpena:</b><br><b>Zer da? Zertan datza?</b><br><b>Nondik dator?</b><br><b>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</b> | <ul style="list-style-type: none"><li>• Barne komunikatu orokorrak eta jakinarazpen orokorrak bi kanalen bidez zabaltzen dira Danobatgroup Talde osoan: euskara hutsezko kanala eta elebietako kanala.</li><li>• Langile guztiei zuzendutako mezuak bidali behar direnean, mezu elektronikoetarako 2 talde daude sortuta (euskarazkoa eta elebietakoa), eta euskarazko helbidera mezua euskara hutsean bidaltzen da, eta elebietakora ele bietan. Beraz, sistematizatuta dago kanalen bidezko mezuen hizkuntza.</li><li>• Langile bakoitzari berak eskatutako moduan heltzen zaio informazio orokorra, euskara hutsean Danobatgroup Talde osoko langileen %80ari eta elebietan %20ari.</li><li>• Taldeko kooperatiba guztiek dute errotuta bi kanalen bidezko komunikazio sistema, eta beraz, kooperatiba barruko mezu orokorrak bidaltzeko sistema hau erabiltzeaz gain, Talde osora bidaltzen diren mezueterako ere erabiltzen da.</li></ul> |

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)